

**2007ko AZAROAREN 29an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko azaroaren 29an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
I. A. Lertxundi
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria adierazi du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
 - 2007ko urriaren 25ean ospatutako ohiko bilkura.
 - 2007ko azaroaren 20an ospatutako ez-ohizko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. B. XX-D etxebizitzako teilatuan eguzki plakak jartzeko baimena ematea, hala badagokio.
4. B. XX-ezk. Etxebizitzako jardinean eguzki plakak jartzeko baimena ematea, hala badagokio.
5. Larraulgo 2.1. unitatearen atzekaldeko lur jaurtikiaren legeztatzeo aurkeztutako dokumentazioaren berri ematea.
6. Manuel Larramendi Kultur bazkuneari 2007 urteari dagokion ekarpenaren kitapena burutzea, hala badagokio.
7. Fakturak eta ordainketak.
8. Beste batzuk.
9. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2007 urteko urriaren 25eko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2007 urteko azaroaren 20ko ez-ohizko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

30/2007 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 29koa, Aste kulturala dela eta iharduera kulturalak ordaintzeko 1.000 euro metalikoan ateratzeko baimena ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

B. XX-D ETXEBIZITZAKO TEILATUAN EGUZKI PLAKAK JARTZEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik A. A. jaunak eginiko eskaera, non B. XX-D etxebizitzako teilatuan eguzki plakak jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2007ko azaroaren 5ean Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. andreak eginiko txostenean dioena:

“A. A. jaunak, B. XX-esk. Etxearen teilatuan eguzki energiazko plakak jartzeko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua eta deskribapen txiki bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

B. XX eraikina, Larraulgo lur-hiritargarrian kokatua dago, bereziki 3.1. unitatean.

Larraulgo arauen 26º artikulua honela dio:

Artículo 26.-Elementos sobre la línea de cubierta.

Por encima de la línea de cubierta, sólo se permitirá la construcción de chimeneas o elementos de instalaciones, tales como antenas, pararrayos, etc.

Aurrekoa ikusirik, eta eguzki plakak etxearen instalazioen hobekuntza bat izanik, egokia izango da udal baimena ematea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A. A. jaunak eskaturiko B. XX-esk. Etxearen teilatuan eguzki energiako plakak jartzeko baimena ematea, aurkezturiko aurrekontu eta deskribapenaren arabera.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

LAUGARREN PUNTUA

B. XX-EZK. ETXEBIZITZAKO JARDINEAN EGUZKI PLAKAK JARTZEKO BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik L. M. T. Z. jaunak eginiko eskaera, non B. XX-ezk. Etxearen belardian eguzki energiako plakak jartzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. andreak 2007ko azaroaren 19an eginiko txostenean dioena:

“L. M. T. Z. jaunak, B. XX-ezk. Etxearen belardian eguzki energiako plakak jartzeko baimena eskatzen du, honetarako lanen memoria, aurrekontua eta aldatutako egoeraren plano batzuk aurkezten dituelarik.

Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

B. XX eraikina, Larraulgo lur hiritargarran kokatua dago, bereziki 3.1. unitatean.

Larraulgo arauen 38º artikulua honela dio:

Artículo 38.-Cierre de parcela

Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50 mts.

Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20 mts.

Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.

Eguzki palak etxearen instalazioen hobekuntza bat izanik eta partzela pribatuaren berdegunea % 50 baino gutxiago ez bada, egokia izango da udal baimena ematea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: L. M. T. Z. jaunak eskaturiko B. XX-ezk. Etxearen belardian eguzki energiako plakak jartzeko baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

BOSGARREN PUNTOA

LARRAULGO 2.1. UNITATEAREN ATZEKALDEKO LUR JAURTIKIAREN LEGEZTATZEKO AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN BERRI EMATEA

Ikusirik I. M. A. jaunak eginiko eskaera, hau da, 2.1. unitateko atzealdeko jarutikia legeztatzeke baimena eskaera. J. A. arkitektoak sinatutako dokumentazioaren arabera.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreak 2007ko azaroaren 28an luzaturiko txostenean dioena:

Aurkeztutako dokumentazioa egindako lanen memoria, aurrekontua eta hasierako egoera eta aldatutakoa adierazten duen plano ezberdinez osatua dago.

01.084 lursaila, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan dago, beraz hirigintza-erregimen hiritargarriezina erabiliko dugu, bereziki 50º artikulua.

Artículo 50.- Carreteras y caminos rurales.

En los movimientos de tierras, los taludes tenderán a ser lo suficientemente tendidos para evitar la construcción de muros.

Los taludes y rellenos que se hayan de ejecutar, se terminarán con siembra de hierba a fin de igualarlos con los terrenos circundantes.

En caso de no poder evitar la construcción de muros, los mismos se construirán con mampostería de piedra. En ningún caso se permitirá dejar vistos los muros

de hormigón. Los muros de gaviones de piedra se cubrirán con plantas enredaderas....

Gainera, 423/1994 Dekretuak, azaroaren 2koa, hondakin inerteak eta inertizazioaren gai izan direnak kudeatzeko arauak finkatzen ditu.

2.1 unitatearen atzealdean lur hiritargarriezinean jarutiki diren hondakinak inerteak dira dekretuaren arabera.

Egindako jaurtikiaren ezaugarrien arabera luraren egokitze baten aurrean aurkitzen gara.

Beraz, udal baimena emateko, bete lan hauek txukundu eta belarrez erain beharko dira.

Dena den, lursail bat egokitzeko udal lizentzia eman baino lehen, Udalak, kokapenaren egokitasunari buruzko txosten bat aurkezteko eskatuko dio ingurugiroko organoari ingurugiroarekiko eragina ezagutu ahal izateko.

Gaia azterturik, bertaratuek I. A. jaunaren, abstentziaz, 30/1992 legeak 28. artikuluan aurreikusitako kasu baten aurkitzen delako

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- I. M. A. jaunak, 2.1. unitateko atzealdeko jaurtikia legeztatzeko aurkezturiko J. A. arkitektoak sinatutako dokumentazioa, Eusko Jaurlaritzako ingurugiroko organoari igortzea onesten du, Udal Aholkulari Teknikoa den E. E. arkitektoak eginiko txostenari jarraituz, kokapenaren egokitasunari buruzko txostena egin dezan.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2007 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2007 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoa dela eta Larraulgo Udalbatzak 2007ko martxoaren 29an aurkeztutako egitaasmoaren aurrekontua onestu zuela, hau da, 2.295 euro, aipaturiko diru kopuruaren % 60^a ordaintzeko erabakia hartu zuelarik.

Ikusirik Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, aurkeztu dituela:

- 2007. Urteko gastuen urtarriletik irailera bitarteko kitapena.
- 2007. urteko dirusarreraren urtarriletik irailera bitarteko kitapena.
- 2007. Urtean Larraulgo udalaren egoera argitzen duen agiria. Non Larraulgo Udalak 918, euro ordaindu behar dituen egitasmoa aurrera eramateko onestutako aurrekontua bere osotasunez ordaintzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: “Beterri Aiztondo gerora bidean “ 2007 ekitaldirako onestutako aurrekontuaren, hau da, 2.295,00 eurotako kopuruaren % 40aren ordainketa burutzea, hau da, 918,00 euro.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

IBERDROLA	85,64
JOXAN ALTUNA	211,86
MANPEL	8,25
TELEFONICA	18,62
TELEFONICA.	15,89
TELEFONICA	29,20
TELEFONICA	91,87
IBERDROLA	85,64
IBERDROLA	137,75
EUSKALTEL	176,66
IZFE	371,20
ARGITU	229,80
TELEFONICA	88,85
ARBE	88,74
AMONARRIZ ITURGINTZA	151,96
ETOR OSTOA	60,00
MANPEL	132,70
UROLA	21,14
UROLA.	118,26
GARRA S.L.	839,84
UROLA	160,54
COMASA	76,14

EUSKO IKASKUNTZA	9,10
KIROLZER	138,35
TELEFONICA	29,20
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	129,31
IZFE	40,23
E. E. B.	637,62

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **4.184,36** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- **2006-2007 urteko zergak ordaindu gabe dituztenei premiamendu bidea hasteko erabakia.**

Ikusirik badaudela hainbat herritar Udalak jarritako zergak ordaintzen ez dituztenak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Udal zergak ordaindu gabe dituzten herritarrei premiamendu bidea hasteko onespina, 2006 eta 2007 urteetakoak. Premiamendu bidea hasi aurretik, idatzi bat bidaliko zaielarik gogoratuz dituzten zorrak.

- **Belarmendi Mendiko Nekazaritzak aurkeztutako idatziaren berri eman**

Batzarkideei Belarmendi Mendiko Nekazaritzak igorritako idatziaren berri ematen zaie, non udaletxeetan eskeintzen dituzten zerbitzuen berri ematen den, adb. Desbrozaketa zerbitzua, Mcalak zerbitzua...eta bakoitzari buruzko tarifak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Belarmendi Mendiko Nekazaritzak igorritako idatzia artxibatzea.

- **Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan, eguzki plakak jartzeko hobaria onestea.**

Alkate jaunak batzarkideei jakinarazten die, aukera dagoela etxeetan eguzki plakak jartzeagatik, zerga honen gain hobaria onestea.

Ikusirik gaur egungo ordenantza fiskalen barruan, konkretuki Ondasun higiezinaren gaineko zergan, kuota osoaren %50eko hobaria dutela, eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2009. Urterako ordenantza fiskalak aztertzean gaia kontutan hartuko dela.

- **J. familiari, bere jabetzakoa den ur hodian izandako hainbat matxuren gastuen igorpena.**

Ikusirik azken hilabete hauetan, J. familiaren jabetzako den ur hodian hainbat matxura gertatu direla.

Ikusirik K. J. jaunarekin izandako bileraren ondorioz ez duela nahi Udalarri laga aipaturiko ur hodia, beraz bertan gertatzen diren matxurak bere kontura izan beharko direla.

Ikusirik, aipaturiko matxura horiek konpontzeko hainbat lan burutu behar izan direla, adb. Udal langilearen eskulana, hodia konpontzeko erabilitako materiala eta kanpotik ekarritako makineria.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENEA: J. familiari, ur hodian izandako matxurak konpontzeko egin diren gastuak igortzea. J. familiak ur hodian gertatzen diren matxuren arduraduna izanik. Gastuak erabaki honi atxikitzen dira.

BIGARRENA: J. familiari ondorengo eskaera egitea: ur hodia Larraulgo Udalari lagatzea. Ondorioz, hodiaren jabetza Udalak hartuko balu, azken honek gerta daitezken matxuren kargu egingo da, baina gertatu diren matxuren gain ez da kargu egingo, hodia udalari lagatu arte.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ondoren aipatzen den mozioa aurkezten da:

**AIZTONDO BAILARA, GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDE EUSKAL
PRESOAK EUSKAL HERRIRA!!!!!!!!!!!!!!**

Idatzi hau izenpetzen dugun udalok beste behin dispertsioaren eraginez euren etxeetatik urrun dauden gizon eta emakumeak gogora ekarri nahi ditugu, are eta gogorago neurri politiko injustuen bidez urruntasun hori gero eta bortitzagoa suertatzen baita.

Bai dispertsioaren aurka gaude eta Euskal presoak Euskal Herrian egoteko duten eskubidea aldarrikatu nahi dugu, guzti honegatik beste behin eta azken urteotan egin moduan azpian sinatzen dugun udalok Abenduaren 31ean, arratsaldeko 7etan eta Zizurkilgo plazan hasi eta Villabonako plazan bukatuz MANIFESTAZIO IXIL bat burutzeko deia luzatzen dugu bailarako herritarrei.

Idatzi hau izenpetzearekin batera zera adierazi nahi dugu:

1.-Herri honek hain beharrezkoa duen normalizazio politikorako arrazoi politikoak tarteko espetxean dauden gizon eta emakumeak euren sorlekuetatik urrun izateak ez duela laguntzen gatazka konpontzen, areagotu baino ez duela egiten.

2.-Ez dela giza legezkoa, espetxean egoteari, senide eta lagunei zigor erantsiak ezartzea, astebururo kiometro pilo bat egin behar izateko 40 minutuko bisita bat egiteko. Dispertsioak eragiten dituen istripuak eta kalteak asko kezkatzen gaituzte. Gertu ditugu horren adibidez, Pello Zelarain Alicanten esaterako.

3.-Euskal Presoak Euskal Herrian egoteak, eurenak diren oinarrizko eskubideak onartzeak, Herri honen baketze eta normalizazioan aurrerapausoak suposatuko lituzkeen bezala, dispertsioaren aitzakiapean ematen diren beste hainbat eskubide urraketa ez gertatzeko modua izango litzateke.

Isolamenduaren amaiera, gaixorik dauden presoek berehalako askatasuna, euren zigorretan ematen ari diren oinarri batere juridikorik gabeko erabakiak, Parot doktrina bezala ezagutua izan dena, oinarri oinarrizkoak diren eskubideen bortxatzea iruditzen

zaizkigu eta hauen bermatzea eman dadin lan egin behar dugu. Datuak nahiko larriak dira gaur egun.

4.-Euskal presoek espetxeetan egonik ere oinarrizko eskubide batzuk dituzte, ikasteko eskubidea, komunikazioarako eskubidea, osasun eskubidea, asistentzia juridiko egoki baterako eskubidea.....behin eta berriz oinarrizkoak izanik ere bermatzen ez direla ikusten ari gara.

5.-Euskal presoek Euskal Herrira ekartzeko idatzi hau izenpetzen dugun udalok gure ahaleginak egiteko konpromisoa berresten dugu.

6.-Idatzi hau izenpetzen dugun udalok, herritar guztiak aipatu manifestazioan partehartzera deitzen ditugu. Honela, udal bakoitzak bando bidez idatzi honen jakinarazpena helaraziko die herritar guztiei.

8.-Jakinarazpen hau bera jasoko dute baita komunikabide guztiek, Espainiako Barne Ministroak eta Gasteizko Parlamentuko Giza eskubideen Batzordeak, hala nola Arartekoak eta komunikabide guztiek.

Horrela jasota gera dadin idatzi hau izenpetzen dugu:

VILLABONAKO UDALAK
ZIZURKILGO UDALAK
ADUNAKO UDALAK
LARRAULGO UDALAK
ALKIZAKO UDALAK

Mozioa aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Aiztondo bailara, giza eskubide guztien alde Euskal Presoak Euskal Herrira!!! Mozioa bere osotasunean onestea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA